



Eman hegoak euskarari



Isiltasunaren poesia

FELIPE JUARISTI



Zenbait gertaeraren aurrean isilik geratzen gara, ez zaigulako hitzik ateratzen esan nahi duguna esateko. Esan nahi eta ezin, ezer ezin egin hori ekiditeko, egoera horri buelta emateko.

Hizkuntzaren mugak nire munduaren mugak dira. Hori idatziz zuen Wittgensteinek 'Tractatus' en. Ados nago, baina irudipena dut gure munduaren mugak estutu diren neurrian, gure hizkuntzarenak gehiegi zabaldu direla, leher egin arte. Litekeena da, litekeena den bezala ez jakitea zein diren hizkuntzaren eta munduaren mugak. Gure ezagutza mugatua da, gure bizitza adina. Egoera larri erremedio gabeek gogoeta

egitera bultzatzen gaituzte.

Aztertzen ez den bizitza, azken finean, alferreko jarduna da, hutsala, azalekoa.

Isiltasunak bere mugak ditu, ezagutzen ez dugun munduarenak hain zuzen. Isiltasuna, izan ere, ondo nahasten da denekin eta denean. Isiltasunaren poesia ez da poesia isila, baizik eta isiltasun eske dabilena bere osotasunean dastatua eta ulertua izateko. Kontzientziaren poesia ere deitzen zaio. Zaila da definitzen, areago zehazten. León Felipek zioen poema bati kentzen badizkiozu, alde batetik, aditzak eta adjektiboak, ez badituzu kontuan hartzen errima eta erritmoa, geratzen dena poesia hutsa

dela, isil-isilik mintzo zaizuna.

Txikitako jolas bat dator kit gogora, ea zeinek denbora luzeagoan isilik iraun. Ezpainak ixten genituen, besoak antxuma jartzen, kopeta iluntzen zitzaigun, eta azkenik hitza sortzen zen. Txikitako jolasa hau ere, zeinek denbora luzeagoan arnasarik hartzeke iraun. Batzuek nahiago ziplo erori amore eman baino.

Isiltasunak izaera asko hartzen ditu, bere bigarren larrua gelditasuna da. Pausoa ezin eman, hitzik ezin esan. Biak antzeko ekintzak dira, bulkada antzekoa ez badute ere izan eta ixteko, itxierak baitira irekierak baino gehiago. Gelditasuna gorputz atalen isiltasuna da.

Isiltasunak musika du eta musikak bere isiluneak. Isiltasunak, ordea, ikara egiten du, zenbait unetan, zenbait alditan. Hutsa delakoan bera betetzen ahalegintzen gara, etxea betetzen dugun bezala, askotan ezertarako behar ez ditugun gauzekin. Isiltasuna mingarria da haren zergatia ez dakigunean, eta minak pentsamenaren eta gogoramenaren ateak gotortu egiten ditu. Isiltasuna zer den ikasten dugunean hasten gara benetan bizitzaren nolabaiteko arrastoa hartzen.

Isiltasunak ez du bere denbora galtzen, bete egiten du. Eta denbora betetzen duen bakarra isiltasuna da. Zaratak hautsi duen denbora galdutako denbora da. Isiltasunak denborari irabazten dio, berriro bera lotu eta batu egiten du.

«Isiltasuna zain dago beti, gelditasunean lasai egonkortuta»

Rilkeren pasarte hau dator kit gogora, gutun batetik hartu dut: «Isiltasuna egin da eta berria dena, inoren ezagun ez dena, erdian ageri da, isilik».

Isiltasunak harritzen du, harritzen gaitu. Isiltasuna zain dago beti, gelditasunean lasai egonkortuta. Batzuk gehiegi hitz egiteaz damutzen dira, ez isildu izanaz. Beste batzuk, hitz egin behar zenean isildu izanaz. Horra hor gizakiaren kontraesana eta paradoxa! Zerbait esan nahi eta ezina, hori bai malurra. Esatea ez da hitz egitea, musika ez da zarata, poesia ez da hitza bakarrik.

Geroak oraina ezeztatzen du, ametsak esnatzea galarazten du, utopiak desira ezabatzen du, denborak espazioa jaten du, eta espazioa galtzen da infinituan. Gizakiak beste gizakia txikitzen du, Jainkoa dela sinestean. Naturak, deus ez, bere isilean dirau, denok bezala.

Wittgensteinengana itzuliz, isiltasunaren gure mugak ezabatzen ditu, eta zabaltzen gara infinituraino.

Alegatu ekologista

KARLA FDEZ. DE GAMBOA VÁZQUEZ

Udazken honetako argitalpen-nobedade guztien artean, bidegabeki oharkabean pasatu da Erein argitaletxeak kaleratu duen 'FIN barkua' albuma. Andoni Olaetxeak idatzitako lehenengo liburua bada ere, Maite Caballerok eskarmentua du ilustratzaile gisa, batik bat kartelak, aldizkariak eta komikiak ilustratzen. Album hau azken urteotan haur eta gazte literaturan indar berezia hartzen ari den korrante ekologistaren barruan sailka daiteke; hau da, literatura ingurumen-hezuntzaren aliatu gisa aurkezten duena eta irakurleen artean arlo horretan gaur egun dauden erronkekiko jarrera aktibo eta konprometitua zabaldu nahi duena.

FIN barkua arrantza-ontzi handi bat da, baina gainerako arrantza-ontziek ez bezala, ontzi horretako marinelek «ura jaso eta gordetzen dute bodegan, arrainak botatzen dituzte

bueltan». Hau da, itsasoko ur guztia biltzea dute helburu, itsasoa basamortu bihurtzeraino. Horrela, itsasontzia eta bertako eskifaia-kideak gizarte kapitalistek ingurumenean dituzten ondorio negatiboen metafora gisa uler litezke. Adibidez, barkua itsasoratzen denean: «Badoa aurrera betirako, ez dago bueltarik», edota marinela arrantzan ari direnean: «Egun eta gau gelditu gabe arrantzan». Maite Caballeroren ilustrazioen trazu lodiek eta kolore hotz eta itzaliek album iluna egiten dute, eta ez da gutxiagorako. Izan ere, errealtate nahiko distopikoa edota apokaliptikoa aurkezten zaigu, izenburutik bertatik indartzen den ideia, eta zoritxarrez gure errealtatetik ez oso urrun egon daitekeena.



FIN BARKUA
ANDONI OLAETXEA
Txalaparta. 32 orr.
15 euro

Liburu honen amaierak ez du lortzen istorioak sortutako harridura eta ezinegona baretzea; endemas, sentsazioa hori are gehiago indartzen da bukaerako babes-orri beltzen bidez, eta horrek hunkipena eragiten dio irakurleari, gogoeta egitera gonbidatzen duena, hain justu. Azken finean, 'FIN barkua' album ausarta da, inor epel utziko ez duena.

Saldu eta erosi

ARANTXA URRETABIZKAIA



Aski diru baduzu, edozer eros dezakezu. Edo hori pentsatzen dugu gehienok, gure begi bistan edo ezkutuan erosten eta saltzen dena ikusiz. Agian benetan dirudun direnek beste iritzi bat dute, ahalegindu arren ez dutelako zerbait erostea lortu edo etengabe erosteak ez dituelako asebetetzen. Auskalo.

Erosten da ospea, edertasuna, osasuna, botoak, jakirik hoberenak, etxerik ederrenak, lasaitasuna. Erosten da etxeetako epeltasuna edo beroa, sareetako adiskideak, erosten dira txaloak, denbora, bakea, etorkizuna. Erosten dira pertsonak, senarrak edo emazteak, langileak, poliziak, epaileak; erosten dira haurrak, erosten dira haur bat mundura ekarriko duten sabelak; erosten da odola,

organoak, gorputzak. Erosten da zerua. Baina zerbait erosten bada, norbaitek zera hori salgai duelako izango da. Dena omen dago salgai, baldin eta bakoitzari hura saltzeko eskatzen duena ordaintzen bazaio. Nonbait, nahi duzun hori erostetik ez baduzu, trukean nahiko diru eskaintzen ez duzulako da. Igo prezioa behar adina eta lortuko duzu.

Salgai dagoen guztia ez da erosten, baina erosten den guztia norbaitek saltzen du. Eta gutako gehienok pentsatzen dugu gure bizitza hobetu ahal izateko dirua dela tresnarik proposena. Gogoan dut txikitan, Eguberrietako loteria-egunean, sari potoloa jaso zuen norbaitek irratian edozein poz adierazpen egiten zuenean, nola esaten ziguten «orain hasiko zaizkio arazoak». Ez nuen orduan ulertzen eta oraindik ere ez dut ulertzen.

Onar dezaket, teoriarik, badirela diruak konpontzen ez dituen arazoak, baina se-guru aldapa apalagoa dela dirua sobran duenarentzat. Hori bai, badirudi inork ez duela dirua sobran, beti nahiko lukeela gehixeago.

Neroni, salgai nago? Ez dakit, batez ere ez delako inor salgai izan dezakena erosten ahalegindu.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Azken Etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Desertuan behatxuloa

Anjel Lertxundi. Alberdania

EZ FIKZIOA

1 Gureak ere badira

Lur Albizu/Eraiz Saez de Egilaz. Txalaparta

2 Barbaroak eta zibilizatuak

Ibai Atutxa. Txalaparta

3 Ganorexia

Iñaki Seguro. Alberdania

4 Begiak zabalduko zaizkizue

Irati Jimenez. Elkar